

ENPRESA EKIMEN BERRIEN 29. LEHIAKETA

OINARRIAK 3. KATEGORIA GIZARTE INKLUSIOA EKINTZAILETZAREN BITARTEZ

Goiekik, Goierriko Garapen Agentziak, ENPRESA EKIMEN BERRIEN 29. LEHIAKETA abian jarri du, horretarako eskualdeko enpresen laguntza duelarik.

Lehiaketa honek bultzatu eta indartu nahi dituen baloreak honako hauek dira: sustatzailearen irudia sustatu, berrikuntza, enpresen garapena eta eskualdean enplegua eta aberastasuna sortu. Azken finean, Goiekik, enpresa mailan Goierri bertan egia bihur daitezkeen asmo guztien alde jarri eta bultzatu nahi ditu. Goierriko ekonomia berpizteko eta eguneratzeko kultura indartzea dakarten proiektu guztien alde egin nahi du. Aldi berean, ekitaldi honetan kategoria berri bat gehitu da, gizarte inklusioa ekintzaitzaren bitartez. Helburua lan munduan txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonei bultzada bat ematea da.

HELBURUAK

- Lan munduan txertatzeko zailtasunak dituztenei bultzada bat ematea.
- Sustatzailearen irudia sustatu.
- Eskualdean lana eta aberastasuna sortu.
- Enpresa berrien garapena eta sorrera sustatu.
- Urteko gizarte inklusioko enpresa ekimen berri onena.

NORI ZUZENDUA

2025-2026 urtean zehar, negozio ideia bati buruz bideragarritasun plana landu eta enpresa martxan jarri duten zailtasun edo eta bazterkeria egoeran dauden pertsonei zuzendua dago (banakako zein taldekako sustatzaileak). Enpresa proiektu hauek Goierri eskualdean kokatuak izan beharko dira.

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Agiriak aurkezteko epea **2026ko irailaren 25ean** amaituko da.

KONTUAN HARTUKO DIREN ERIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuak epaimahai baten bitartez izango dira aztertuak lehen fase batean.

Lehen fase honetan aukeratuak izan diren proiektuak, epaimahaiak beharrezkoa ikusiko balu, euren proiektua aurkezteko aukera izango dute.

Kontuan hartuko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- Produktu edo zerbitzuaren bideragarritasuna merkatuan.
- Proiektu sendoa izatea.
- Eskualdearentzat erreferentea izatea egin duen ibilbidearengatik.
- Sostengu ekonomikoaren ikuspuntutik proiektua bideragarria izateko proposamen alternatiboak: beste finantzazio iturriak eta moduak (adibidez mikro kredituak), kooperatibismo izaera juridiko bezala, lokala elkar banatzea beste negozio batzuekin, kolaborazioaren bitartez sortzen diren sinergiak baloratu.
- Sustatzailearen konpromisoa enpresa proiektuarekin.
- Epe ertainean hazteko, aberastasuna eta lanpostuak sortzeko aukerak.
- Enpresa proiektua Goierri eskualdean kokatzea.

SARIAK

Gizarte inklusio ekintzaitzaren bitartez proiektu onenak ondorengo sariak jasotzeko aukera izango du:

- 2.000€-ko diru-kopurua.
- Industria eta ekintzaitzaren arloak eskaintzen dituen zerbitzu guztietara sarbidea izatea.
- Aholkularitza, laguntza eta jarraipena jardueraren lehen urtean.

Epai-mahaiak, aurkeztutako egitasmoaren maila txikiegia dela erabakiz gero, sariak ezerezean geratu daitezke.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Negozio ideien bideragarritasun plana, nahi izanez gero Goiekik duen eredu eskuragarri dago.

Enpresa proiektuak formatu digitalean aurkeztu beharko dira, bai Goiekiko bulegoetan (Goierri Berrikuntza Gunea- NBF Eraikina- Arranomendia 5, Ordizian) edo ondorengo e-mail helbidera: maialen.goieki@goierri.eus

Informazio gehiago:

- Telefonoa: 943 16 18 31
- <http://www.goierri.eus/lehiaketa>

EPAIMAHAIKIDEAK

- Udaleko migrazio eta aniztasun teknikaria
- Udaletako gizarte langileak
- Eskualdeko merkatari teknikaria
- Goiekiko 2 ordezkari.

KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Lehiaketaren epai-mahaiak, hala baderitzo, aurkeztu direnekin elkarriketak izango ditu.
- Saria jaso ahal izateko, Ogasun Publikoan eta Gizarte Segurantzaren ordainketak eguneratuta dituela egiaztatu behar da.
- Saria jasotzeko, pertsona/talde sustatzaileak, proiektu irabazlea izendatzen den momentutik bi urteko epea izango du proiektua martxan jartzeko. Sustatzailearen eskuetatik kanpo gelditzen den arrazoiengatik epe hau baina denbora gehiago beharko balitz proiektua martxan jartzeko (lizentzien tramitazioengatik, etab.), epe hau luzatu ahal izango da, beti ere alde aurretik horrela eskatzen bada eta Goiekiko teknikariek horrela erabakitzen badute.
- Aurkeztutako proiektuak edo asmoak epaimahaikideek isiltasun osoan gordeko dituzte.
- Parte hartzen duena bera da aurkeztutako agiri horietan esan duenaren egiazkotasunaren erantzule bakarra; Saria ematen duten erakundeak inondik inora ere ez daude derrigortuak hor esandakoak egia ala gezur diren aztertzeraz edo egiaztatzeraz, baina hala ere, hala egitea beharrezkotzat edo komenigarritzat joko balute, aukera dute hori egiteko.
- Saria ematen duten erakundeek ez lukete inongo erantzukizunik aurkeztutako asmoak ustiatzeko proposatzen denak edo parte hartzaileak aurkeztutako edozein agirik beste inoren eskubideak modu batean edo bestean urratuko balitu, hau da, jabego intelektualaren, industria-jabegoaren edo beste edozein motatako jabegoren eskubideak urratuz gero.